

Sabino Arana 8
48013 Bilbao
beaz@bizkaia.eus
T. 944 395 622
beaz.bizkaia.eus



BEAZ, SAU

Kudeaketa politika

2022ko azaroaren 10an





BEAZ baltzuaren azken helburua enpresa berritzaileak sortzea eta Bizkaiko enpresa egituran berrikuntza sustatzea da. Bere Kalitate Politika enpresaren gizarte erantzukizunaren irizpideak aintzat hartuta ezarri du.

Zuzendaritzaren helburua da interesa dutenek enpresan honako ezaugarriok ohartzea: gizarte erantzukizuna kontuan hartzea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzen ahalegintzea, bere langileen osasunari arreta handia ematea eta, oro har, zerbitzua ematen dion gizartearen ongizateari begira aritzea. Horrenbestez, legezko beharkizunak eta borondatez sinatu ditugunak betez, aldi berean Etengabeko Hobekuntzan oinarritutako lan sistema atxiki ahalko dugu, Enpresa Bikaintasunaren esparruan geure helburuak lortzen laguntzeko.

Bere zereginak betetzeko eta bere jardueren Etengabeko Hobekuntza bultzatzeko eta beraiei lotutako prozesuak azaltzeko, BEAZek daukan kudeaketa sistema dokumentatuak aukera ematen du halako batean bere jarduerak nola egin behar diren jakiteko, nornahik egiten dituela ere. Horrela eraginkortasuna bermatzen da eta, gainera, erantzuna ematen die hainbat sistemaren beharkizunei:

- Kalitatearen kudeaketa (UNE-EN ISO 9001:2015)
- I+G+bren kudeaketa (UNE 166002:2021)
- Ingurumenaren kudeaketa (UNE-EN ISO 14001:2015)
- Webgune irisgarrien kudeaketa (UNE 139803:2012)
- Lan arriskuen prebentzioaren kudeaketa
- Berdintasunaren kudeaketa
- Compliancearen kudeaketa
- Datu pertsonalen babesaren kudeaketa
- Eraitzen Babesa eta Ustiapenaren Kudeaketa

BEAZko Zuzendaritzak eta langileek aintzat hartu behar dute dagokien alderdi guztien eskariak eta lege eta arauak eta enpresak sinatu dituen bestelako beharkizunak betetzeak duen garrantzia, berrikuntzak eta merkatuak eskatzen



dituzten teknologia aldaketak alde batera utzi gabe eta ingurumenari dagokionez portaera Etengabe Hobetzeko konpromiso aktiboa hartuz:

- Kontsumoak optimizatuz
- Sortutako hondakinak gutxituz eta egokiro kudeatuz
- Ingurumena babestuz gure jarduerak sortzen duten kutsadura prebenituz eta mu-rriztuz
- Gure jarduerak sortzen duten kutsadura prebenituz eta murriztuz
- Enpresa bezero eta hornitzaileei ingurumenari dagokionez kontzientziazioa zabalduz
- Metodologia aplikatzea eta, ondoren, ltoberen Erronka Garbia-Ekitaldi Jasanga-rria ziurtagiriarekin aintzatestea, hartara, ekitaldira bertaratutako pertsonak eta BEAZen erakunde laguntzaileak kontzientziatzeko ekitaldi jendetsuen garape-nari lotutako inpaktu negatiboak arintzeko beharraz

Gainera, BEAZen Kudeaketa Sistemari dagozkion ekintza guztiak, lanpostu guztiguztietan eta zentzurik zabalenean, Etengabeko Hobekuntzaren ikuspegitik egin behar dira, hau da:

- Aurrez aurretik planifikatuz
- Arrisku potentzialei buruzko kontingentzia-planak aztertzea eta garatzea
- Planifikatutakoaren arabera burutuz
- Egindako lana kontrolatuz eta berrikusiz
- Lortutako emaitzak egiaztatuz eta baliozkotuz
- Ikasitako ikasgaiak etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik aztertzea, bai eta sortzen diren aukerak aprobeatzeko ere

Hori lortzeko enpresak konpromisoa hartzen du honako helburu orokorrak betetzeko:



- Gure helburu eta xedeak ezartzeko eta berrikusteko esparrua finkatzea, hala nola arduradunak, baliabideak eta adierazleak, den-dena dagozkien Kudeaketa Planen barruan
- BEAZko langileengandik interesatua dauden alderdi guztien eskariak betetzeko konpromisoa hartzea eta lege eta arautegiak eta libreki BEAZek sinatutako bestelako beharkizunak betetzea
- Barruko zereginak optimizatzea, baliorik eransten ez duten lanak baztertuz, ezartzen diren helburuak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriz eta langileei lortutako emaitzen berri emanez
- Inguruaren zaintza eta merkatuaren prospektiba indartzea, proiektu propioak eta inorenak aztertzearekin batera aurreikuspen teknologikoa egiteko oinarria sor dadin
- Barruko eta kanpoko arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta kudeatzeko sistema bat ezartzea
- Gure bezeroak diren enpresei, hornitzaileei, kontratistei, eta azpikontratistei BEAZen ezarritako Kudeaketa Sistemari lotuta dauden gaietan ezarritako arauak betetzeko gomendatzea
- Lortzea bezerotzat nahi ditugun gizarte eragileek honelako enpresatzat hartzea: kalitate, berdintasun, berrikuntza, ingurumen eta lan segurtasun eta osasunarekin konprometitua; sozialki arduratsua eta gure ekite eremuaren etengabeko hobekuntza lortzeko grinatsua

Politika hau bat dator enpresaren kultura eta balioekin eta antolakundean komunikatu, ulertu, aplikatu eta berrikusi eta noizetik noizera gaurkotu behar da.

Ezartzea zuzendaritzaren lehentasunezko helburua eta BEAZko langile guztien erantzukizuna da.

Zuzendaritzak onartua

